

neskatoaren familiak Indiara alde egingo du Puro alaba atzean utzita. Purok senarra engainatu eta senideekin bat egitea lortzen duenean, ordea, gizon hindu batekin ezkontzeko agintzen diote, berriro «gizarteratzen» lagun diezaion. *Pinjar*-ek, Jyotirmoyee Deviren (Jaipur, 1894-Kolkata, 1988) *Itihashe Stree Parva* nobelak bezala (Emakumeen liburua historian, 1966), komunitatekin kanpo geratu ziren emakumeek aurre

Bi eremu misto India eta Pakistanen artean banatu zituzten: Punjab mendebaldean, eta Bengala ekialdean

Britainiarren agintea ziurtatzeko estrategia izan zen hinduen eta musulmanen arteko herri sustatzea

egin behar izan zioten bazterketa azaltzen du. *Pinjar*-en kasuan, indarez bihurtzen da Puro familia musulman bateko kide, eta ezkontza bidez bakarrik berreskura dezake «galdutako» ohorea. *Itihashe Stree Parva*-n, ordea, zatiketarik umezurtz utzi eta musulmanek hazitako Sutara betiko galduta dago Kolkatak senideentzat, eta nahiago dute gurasoekin batera hil zela sinestea.

India hamaika aukeren lurraldea dela esaten zaigu Salman Rushdiren *Midnight's Children* nobelan (Gauerdiko haurrak, 1991), baita «aldian-aldian odolerrituek bakarrik eskaini dezaketen santutze eta berritzea» behar duen mito kolektiboa ere. Zatiketaren gaineko komentariorik egiteari uko egiten dio, ordea, Indiarren sorrerarekin batera abiatzen den arren istorioa. «Ez dut zatituriko Punjaben mugetan gertatzen ari den odol jario masiboa deskribatuko (zatituriko nazioek beren burua garbitzen dute bata bestearen odolarekin); Bengalako indarkeriatik zein Mahatma Gandhiren bakerako ibilbidetik begirada aldunduko dut», dio narratzaileak.

Egiazki, orain arte literaturan gutxi jorraturiko gaia izan da zatiketarena, baina azken urteetan hasi dira gertaera traumatikoen gaineko eta bertsio ofizialaren kontrako lanak agertzen. Gertaturikoa gogoratzeak bizikidetzaz aitzuri egiten duela eta, India zein Pakistango gobernuen orain arteko jarrera izan baita zatiketa garaiko indarkerian norberak jokaturiko rola ahaztu, eta nazio sorreraren gaineko garaipenezko diskurtsoak zabaltzea.

Euskal Arkadia Ameriketara

Alex Gurutxaga

Letrak eta zenbakiak elkarrengandik hain urrun dabilen garaioan, ez dira asko izaten lerro biak uztartzen dituzten ikertzaileak. Kepa Altonagak zientzia eta kultura, literatura eta ikerketa zientifikoa lotu izan ditu bere-berea duen saiakera moduan. Orain arteko lanei begiratu gero, esan liteke Altonagarena, zientziaren dibulgazioa baino, zientziaren inguruko saiakera dela, gehienbat zooloziaren inguruko –horrexen irakaslea da EHU–. *Patagoniara Hazpamen barrena* lanean, ordea, historiaren eta antropologiaren aldera jo du. Hori bai, ohiko abilezia eta zorrotzasunarekin.

Saiakeraren muinean dagoen mugimendu historikoa harrigarria da XXI. mendeko begientzat: batzuek eduki zuten propositua

beste Euskal Herri bat itsasoz haraindian asentatzeko eta, jakina, noia zeuden beste batzuk asmo horren kontra. Mugimendu horren bueltan, hamaika pertsonaia agertzen zaizkigu: Daniel Lizarralde, Juana Canut, Florentino Ameghino, Annie Besant, Francisco Grandmontagne, Gratien Adema-Zaldubi, eta abar. Baina,



'Patagoniara Hazpamen barrena'

Egilea: Kepa Altonaga. Argitaletxea: Parnela.

guztien artean, dikotomia markatzen duten bi pertsonaia antagoiniko-edo daude: Florentino Basaldua (1853-1932) eta Janpierre Arbelbide (1841-1905). Lehena, Bilboko ingeniaria, konbentzitua zegoen Patagonian *Euskal-Berria* sortzeko aukeraz. Bigarrenarenentzat, ametsak baizik ez ziren kontuok. Istorio hau, harrigarria izanik ere, ez da bitxikeria halamoduzkoa, ezta gutxiagorik ere; besteak beste, Euskal-Berriaren aurretik hor zegoelako Galesen aurrekaria.

Bestalde, Ameriketako euskal Arkadiaren ametsak sakoneki beste gai batzuk ere ukitzen ditu. Batez ere, bi. Alde batetik, lurraldeen idealizazio askotarikoak daude. Hasieratik markatzen du hori egileak, haurtzarotik abiatzen baita, Txorierrin inoiz izan zitekeen Obabatik, eta New York jartzeko baitu kontrapuntuak. Euskal Herriaren kasuan, Altonagak Pierre Lotiren irudia dakarkigu, berak *Lotilandia* deitzen diena: lurralde idiliko eta purua, baina errealtatetik oso urrutit geratzen dena. Amerikaren kasua ere argia da: hamaika bider idealizatua hura ere, eta, promestutako lur gozo guztiak bezala, ezinezkoa.

Beste gai nagusia migrazioa da, batez ere euskal emigrazioa: *Betiri Sants*-ek, miseria gorriak herri lekututako milaka euskaldunak. Elisee Reclusen lanaren izenak dena esaten du: *Les Basques, un peuple qui s'en va*. Saitekera hau, aldenik alden gurutzatzen du –lurpeko erreka baillitza– emigrazioaren dramak, eta hor kokatu behar da Arbelbide Hazparneko misionisten buruzagiarren iritzia.

Kepa Altonagak literatura zientifikoa bildu eta komentatzen du, testu eta ikertzaileak ahanzturatik ateratzen, eta bate-tik besterako loturak eginez eramatzen du irakurlea gai eta lekuen artean aurrera. Dokumentazio lana zorrotza da, eta irakurlea bere bilaketan konplize ere bihurtzen du askotan. Testuaren estiloa zaindua da oso, kasik fazi-tia izateraino; euskara, koloretsoa, trinko eta eraginkorra, euskalkiaren printzeekin aberastua.

Patagoniara Hazpamen barrena-n aurkituko dituzu Otañoren bertsoak, *Mydolon daruini* animalia erraldoia, lur aramstuen lilura, Agnes Souret modelo ez-peletarra... eta beste hainbat kontu. Trebetasunez joslak denak.

Preso politikoa

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Esku artera iritsi zaigun liburuxka 61 orrialdeko narrazio bat da, harnasei ataletan banatuta dagoena, eta orrialdea betetzen duten zortzi irudi dituena.

Arin irakurtzekoa, beraz. Narratzaileak bere burua aurkezten digu lehenik –Nadia du izena–, eta, jarraian, bere bizitza nolakoa den kontatzen digu, fokuan jarriz, batez ere, kartzelan dagoen bere aitari egiten dizkion bisitak.

Bisitak horiek Nadiaren bizitzaren ardatz bihurtu dira. Haienkin pentsatuz, haiengatik sufritud, haien esperoan egunerokoa antolatuz pasatzen zaio bizitza.

Gertaera batzuk deskribatzen dira, baina funtsean egoera baten deskribapena egiten da.

Pertsonaia txera handiz aurkezten dira. Izenak, egoeren des-

kribapenak, eta obraren elementu guztiak simbolismo karga nabarmen batez eraikitua daude, eta hortik dator, esaterako, preso dagoen aitaren eta Nemo kapitainaren arteko paralelismoa: gizartetik aparte dagoen pertsona baten bizitza, harremanetan soilik liburuaren bidez jartzen dena munduarekin, eta itxi zuten egunkari batean lanean ari zena, kartzelatu zutenean. Hortik ateratu kontuak.



'Nemo kapitainaren azken bidaiak'

Idazlea: Castillo Suarez. Ilustratzailea: Aitziber Alonso. Argitaletxea: Erein.

Hobe libre

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

I. Mercero

Narrazio labur bat da, bere 38 orrialdeak irudiz hornituak dituen, eta testua gainean, kasik album ilustratu dei genezakeena (zergatik ez?).

Narratzaile orojakile batek Silviaren eta bere aitaren arteko kontakten digu, astebete irauten duena kontakizunean. Hain zuzen, Silviaren urtebetetze eguna iritsi bitartekoa.

Izan ere, neskatoak urtebetetze opari berezia nahi duela diotso aitaxori: txori bat.

Gurariaren bitxiak jabetuta, zergatia galdetzen dio haurrari, apeta iragankor bat ez ote den buruan dabilkiena susmatuta. Baina argudiaketa sendoarekin erantzuten diola ikusirik, batezkoa ematen dio. Dena aurrekusi-ta dagoela dirudienean, ordea, oparia ezustekoa izango da...

Irakurle hasiberrientzat gozatzeko moduko testua izan daiteke, nahiz eta azalean diogen 5 urteko gutxieneko adina nik bizipahiru urte gorago ezarriko nukeen, bi arrazoirengatik: ekologia adin guztietarako gaia baldin bada ere, kontakizunak duen garapenak eta bukaerako erresoluzioak duen konplexutasunak hala eskatzen dutela iruditzen zaidalako. Eta, bestetik, ilustrazioen proposamen estetikoaz jabetzeko, irakurleak begia hezita izan behar duela iruditzen zaidalako.



'Silviarentzako oparia'

Idazlea: Fran Pintadera. Ilustratzailea: Ximo Abadia. Itzulitzailea: Mari Eli Ituarte. Argitaletxea: Ibaizabal.